



Docentiaz

DOCENTIAZ

**IRAKASLEEN IRAKASKUNTZA
JARDUERAREN EBALUAZIO
PROGRAMA**

**Irakaslana Ebaluatzeko
Unibertsitate Batzordeari
DOCENTIAZ 9.B programari buruzko
inkestan oinarritutako txostena**

2019ko azaroa



SARRERA

DOCENTIAZ UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren ebaluazio programa hezitzailea da.

Deialdi honetan, DOCENTIAZ programa borondatezkoa da, eta irakaslan ebaluatzeko hiru informazio iturri ditu: irakaslea (autotxostena betetzen duena), ikasleak (iritzia ematen dutenak, lauhileko bakoitzaren amaieran jasotako irakaskuntzari buruzko inkesta bat beteta) eta, azkenik, ikastegia (Kalitate Batzordearen bitartez irakasleen lanaren alderdi formalei buruzko txosten bat egiten duena). Amaitzeko, hiru iturri horiek emandako informazioa aztertuta eta egiaztatuta, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) irakasleei zuzendutako amaierako txostena egiten du.

DOCENTIAZ programaren bederatzigarren deialdia 2019ko otsailean jarri zen abian, ohiko bideetatik ezagutarazi zen, eta 2019ko irailean amaitu da.

Irakaslan ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) ebaluazio bat egin behar du, goian aipatutako hiru informazio iturrietan oinarrituta. Batzorde hau ondorengoek osatzen dute: irakaskuntzan ospea duten eta ebaluazio prozesuak ezagutzen dituzten UPV/EHUko irakasleek, gure unibertsitatean ikasi duten eta espediente aipagarria duten hirugarren zikloko ikasleek, eta UNIBASQek proposatutako UPV/EHUtik kanpoko hiru kidek.

Jarraian, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeko kideei egindako galdera-sortatik ateratako emaitzak ikus daitezke. Galdera-sorta, 2019ko uztailean, telematikoki bidali zitzairen eta modu anonimoan erantzun zioten.

Deialdi honetan 7 ikasle izan dira ebaluatzaile: 2 Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzordean, eta 5 aldi baterako izaeraz izendatuta.



ERANTZUNEN ANALISIA

Galdetegiak likert mota neurriaren eskala galdera dikotomiko, kategorizatu, edo irekiekin nahasten du. **DOCENTIAZ** programaren garapenari buruzko 19 galdera ditu, horietako 10 atal irekiak izanik, hortaz, pisa kualitatiboa oso nabarmena da galdetegian.

IEUBko 52 (45 IIP, 7 ikasle) kideei egin genien galdera-sorta betetzeko gonbita; horietatik 21k (20 IIP, ikasle 1) erantzun zuten.

Jasotako galdetegien bidez bildutako informazioa, txosten honetara eramateko, edukia bi zati ezberdinetan banatu da: lehenik, bai galdera bai erantzun motagatik informazioaren transmisioa era grafiko eta kuantitatiboan posible egiten duten ítem haiek; jarraian, batera eta kualitatiboki, biltzen da jasotako iritzien adierazgarritzat hartu den informazioa, errepikatzeagatik nahiz haren edukiagatik.

Docentiaz programan erabilitako dimentsioei dagokienez, inkestaturako pertsonen% 95ek uste du pisuak ondo banatuta daudela, eta% 5 ez dago batere adoz baieztapen horrekin. % 38k dimentsioak aldatuko lituzke, eta 1. dimentsioa da onarpen gutxien jasotzen duena,% 17k aldaketaren bat egitearen aldeko iritziak baititu.

Asebetetze-ehunekoa ere handia da protokoloaren xehetasun-mailari dagokionez:% 95 aldeko erantzunak izan dira (% 5, Gutxigorabehera adoz, % 47 Nahiko adoz, % 43 Erabat adoz). Antzeko emaitza lortu da Docentiaz programan erabilitako kategorizazio berriari dagokionez,% 90ek uste baitu programa horrek irakasleak bereizten dituela beren irakaskuntzaren kalitatearen arabera.

Ebaluazio-prozesuan erabilitako informazio-iturriei dagokienez,% 86k uste du nahikoak direla gaur egun erabiltzen direnak, eta ikasleak direla, iritzi-inkestaren bidez, onarpen handiena jasotzen duen informazio-iturria; izan ere, galdetutako pertsonen% 95ek uste du informazio-iturri egokia dela (% 42k, Erabat Adoz, % 24k Nahiko Ados,ioko Nahikoa;% 29k, Gutxi Gorabehera Ados), eta, ondoren, irakasleak eta ikastetxeetako Kalitate Batzordea. % 90 eta% 85, hurrenez hurren, nahiz eta irakasleek izan onarpen handiena lortu dutenak erabilitako eskalaren maila gorenean;% 52 erabat ados dago informazio-iturri horrekin, ikasleen kasuan% 42 eta Kalitate Batzordearen kasuan% 33.




Prozedura gauzatzeko erabilitako aplikazio informatikoari dagokionez, onarpen-indize hori ere handia da: % 90ek uste dute aplikazio horrek ebaluazio-lana erraztu duela (% 43k, Erabat Ados, % 47k, Nahiko Ados). Ez nago batere ados aukera ez da hautatua izan.

Kategorizatutako 5 galderei emandako muturreko erantzunetan, batez beste, % 42,71k erantzun zuen erabat ados zegoela, eta soilik % 4,28k erantzun zuen ez zegoela batere ados planteatutako baieztapenarekin. Azkenik, espediente bakoitzaren ebaluazioan erabilitako batez besteko denbora 3 ordu eta erdikoa izan da.




Eranskina: Jasotako erantzunak

1. itema.- Mesedez aukeratu zure jakintza arloa:



- Artea eta Giza Zientziak	2	%10
- Zientziak	4	%19
- Osasun Zientziak	1	%5
- Gizarte eta Lege Zientziak	11	%52
- Ingeniaritza eta Arkitektura	3	%14
Jasotako erantzunak	21	%100


3. itema.- DOCENTIAZ programan dimentsioen pisua ondo banatuta dago:




Ez nago batere ados	1	%5
Ez nago ados	0	%0
Gutxi gorabehera ados nago	0	%0
Nahiko ados nago	11	%52
Erabat ados nago	9	%43
Jasotako erantzunak	21	%100

5. itema.- Irakaslanaren berri emateko zehaztu diren iritzi-iturri hauek egokiak dira:


	Ez nago batere ados	Ez nago ados	Gutxi gorabehera ados nago	Nahiko ados nago	Erabat ados nago
Irakasleak	%0	%10	%0	%38	%52
Ikastegiko Kalitate Batzordea	%10	%5	%28	%24	%33
Ikasleak (iritziari buruzko inkestaren bidez)	%0	%5	%29	%24	%42



6. itema.- Beste informazio-iturriren bat sartzea hartzen duzu beharrezkotzat:




8. itema.- Aplikazio informatikoa lagungarri izan da ebaluatzerakoan:




Kategoria	Erantzunak	Porzentaia
Ez nago batere ados	0	%0
Ez nago ados	2	%10
Gutxi gorabehera ados nago	0	%0
Nahiko ados nago	10	%47
Erabat ados nago	9	%43
Jasotako erantzunak	21	

11. itema.- Protokoloa behar adina zehaztuta dago:



Kategoria	Erantzunak	Porzentaia
Ez nago batere ados	1	%5
Ez nago ados	0	%0
Gutxi gorabehera ados nago	1	%5
Nahiko ados nago	10	%47
Erabat ados nago	9	%43
Jasotako erantzunak	21	


13. itema.- Lortu nahi den bezala, eta irakaslanaren balorazioan kategorizazio berria kontuan hartuta, DOCENTIAZ programak irakasleak bereizten ditu haien irakaskuntza kalitatea kontuan hartuta:



Ez nago batere ados	2	%10
Ez nago ados	0	%0
Gutxi gorabehera ados nago	3	%14
Nahiko ados nago	7	%33
Erabat ados nago	9	%43
Jasotako erantzunak	21	


15. itema.- Azaldu zein izan den erabilitako denbora, batez beste, espedienteak ebaluatzerakoan (ordutan neurtuta):

Erabilitako denbora	(21 erantzun)	
1 ordu	0	0%
2 ordu	4	19%
3 ordu	8	38%
4 ordu	4	19%
5 ordu	5	24%
Batez bestekoa:	3,5	






16 itema.- Dimentsioren bat aldatuko zenuke?



17 itema.- Azaldu zein izango litzatekeen:



0 Dimentsioa	1	%11
1 Dimentsioa	2	%22
2 Dimentsioa	4	%44
3 Dimentsioa	2	%22
Jasotako erantzunak	9	



Jarraian, Irakaslana Ebaluatzeiko Unibertsitateko Batzordeak 9. Deialdiaren Docentiaz programari egindako hausnarketan eta hobekuntzen proposamen laburpena batzen da.

2. itema.- Azal ezazu DOCENTIAZ programatik ken ahal den adierazle bat. Mesedez, argudiatu zure erantzuna:

- Adierazle guztiak beharrezkoak dira.
- Ebaluatu behar diren zenbait ataletan, sartu ahal diren erregistro- kopurua handitzea (komunikazioen kopurua, liburuak, merezimenduak eta abar).
- 14 eta 19 adierazleen arteko berdintasuna.
- 26, 27 eta 28 adierazleak, nolabait gainezartzen dira.
- Eman diren prestakuntza ikastaroak: Komenigarria izango litzateke berriro zehaztea alor honetako merezimenduak, irakasleek, soilik egokiak diren merituak erantsi ditzaten.
- 10, 11. eta 12. adierazleak kenduko nituzke, adierazle hauetan eskatzen dena nahitaez bete beharreko baldintzak baitira.
- 3. Dimentsioan, lanen zuzendaritza kentzea, irakasle guztiek ezin dute mota hauetako irakaskuntza eman eta..
- Zaila da 28 adierazlea ebaluatzea, eskatzaileak ez badu erlazio hori adierazten duen taula bat jartzen.
- Web orrian argitaratu den Ikasle Gida ebaluatu.

4. itema.- Azal ezazu egin litekeen aldaketa bat (Dimentsioen pisua ondo banatuta dago DOCENTIAZ programan):

1. Dimentsioa

- Pisu gehiago eman lehenengo dimentsioari.
- Ikaslanak eta ikasle gidari puntu gutxiago eman.
- 1. eta 2. Dimentsioei 40na puntuko pisua eman.
- 2. Dimentsioari pisu gehiago eman.

2. Dimentsioa

- Pisu gutxiago eman arrakasta taseei.

3. Dimentsioa

- Dimentsio honi emandako pisu gutxitzea.



7. itema.- Arrazoitu zure erantzuna, mesedez (Beste informazio-iturriren bat sartzea hartzen duzu beharrezkotzat?):

- Irakasleak jarritakoa egiaztatu.
- Ttutoretza-lana nola egiten duten deskriba dezaten.
- UPV/EHUko web orrian dagoen Ikasle Gida.

9. itema.- Adierazi alderdi negatibo bat (Aplikazio informatikoa lagungarri izan da ebaluatzerakoan):

- Sartzeko zailtasunak, ebaluatzailea EHU/UPVtik kanpokoa denean.
- Ebaluatzeko erabiltzen den Excel engorrosa.
- Bat ere ez.
- Plataformaren moteltasuna.

10. itema.- Adierazi hobekuntza bat (Aplikazio informatikoa lagungarri izan da ebaluatzerakoan):

- Urtero ikasgelan erabiltzen diren Ikasle Gidak gordetzeko biltegi bat egitea.
- Ebaluatzailea UPV/EHUtik kanpokoa denean, sistemara atzipena erraztea.
- Aplikazio informatikorako sarbide eraginkorra.
- Aplikazio informatikoa lagunkoiagoa.
- Hurrengo deialdiari begira, akats informatikoak konpontzea.
- Gaizki grabatuta dauden datuak bizkorrago zuzendu ahal izatea
- Aurkeztu diren merezimenduei dagozkien dokumentuak erantzeko sistema hobetzea.
- Hirugarren dimentsioan "beste merezimendu batzuk" kategoria eranstea.

12. itema.- Adierazi protokoloan aurkitu duzun hutsuneraren bat:

- 3.4 atalean ebaluatu behar diren merituen zehaztea.
- Hobetu zehaztea meritu bakoitzari eman behar zaion puntuazioa, eta adierazi zenbat puntu eman behar den ziurtagirien arabera.
- Gezurrak zigortzea.
- GAL eta MAL epaimahaiko kidea izatea aintzat hartzea.
- Ondo errebisatu adierazleen deskriptoreen eskalak, batzuetan anbiguoak baitira.
- 1. Dimentsioa zehaztuegia dago, hainbat alderdi errepikatzen dira eta.



14. itema.- Adierazi zer neurri litekeen lagungarri, bereizgarritasun hori lortzeko, irakaskuntza kalitateari erreparatuta (lortu nahi den bezala, DOCENTIAZ programak irakasleak bereizten ditu haien irakaskuntza kalitatea kontuan hartuta):

- Irakaslearen sustapenean eragin handiagoa eukiko balu.
- Emaitzak arlo pertsonalean geratzen dira.
- Ikasleran Gida eta Ikaslana puntu gehiegi ematen dute.
- Gida eta Ikaslana benetan klasean erabili direla, eta ez direla espresuki Docentiaz aurkezteko sortu, eta irakasleak benetan parte hartu duela hauek egitean ziurtatzea.

18. itema.- Azaldu proposatuko zenukeen aldaketa bat, eta dagokion dimentsioa:

- 0 dimentsioko balioa berdina izan beharko luke irakasle guztientzat.
- Zenbait jardueri ematen den puntuazioa, esate baterako ikasgaiaren koordinazioari, nire ustez, gehiegizkoa da beste merezimendu batzurekin alderatuta.
- 2. Dimentsioaren pisu gutxitzea.
- Arrakasta tasak eta ikasleen iritsia modu ezberdinean ebaluatzea, irakaskuntza egiten den egoeraren arabera.
- 1. Dimentsioan, zuzendutako lanak aintzat hartzea, lan hauek irakaskuntzaren ondorioa baitira.

19. itema.- DOCENTIAZ programa hobetu nahian, gomendagarri litzateke honakoez gogoeta egitea:

- Espediente gehiegi ezarritako epean ebaluatzeko
- Deialdira aurkezten diren irakasleei jakinaraztea bakarrik hartuko direla kontuan dokumentu batek justifikatzen dituen merezimenduak.
- Faktore zuzentzilea nola kalkulatu den era birpentsatu, eta ikasgai bakoitzean emandako kredituei gutxieneko zenbaki bat jartzea, faktore hau erabiltzeko.
- Programara aurkeztu den irakasle bakoitzarentzat hobekuntza plan bat egitea eta jarraitzea, ondorengo deialdietan kontuan hartzekoa.
- Barne txosten bat egitea ebaluatzaileentzat, zenbait jardueren puntuazioa zehazteko, baita ere kontuan hartu behar diren irizpideak, denak ebaluazioa era berean egin dezaten bermatzeko.



- Ebaluatu behar diren merituen kopurua murriztea.
- Irakasleek aurkeztutako edukiak egiaztatzea.
- 90 puntutik gorako puntuazioa, eta 3 dimentsioetatik bitan bikaintasuna lortzea nahikoa izan beharko lukeela bikaintasuna lortzeko.
- Faktore zuzentzailea beste dimentsio bakoitzei aplikatu batuketa egin aurretik.
- Pisu gehiago eman 1. Dimentsioari, eta gutxiago 2. ari.
- Hobeto zehaztu protokoloan ikaslearen gidari dagozkien adierazleak, eta jarduerari bakarrik dagozkien adierazleak.
- Epaimahai kidea izana aintzat hartzea.
- Estrategikotzat jotzen diren helburuei garrantzi berezia emateari buruz hausnartzea.